

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA GARATZEKO PROZESUA

TALDE ERAGILEAREN AKTA:

Eguna: 2021-07-14

Ordua: 18:00-20:30

Lekua: Tolosako Amaroaz auzoko auzo-etxe lokala

Partaideak:

PARTE-HARTZAILEAK

Tolosaldeko emakume-elkarteetako, eragile feministetako nahiz norbanako gisa parte hartzen duten emakumeak. Guztira 11 emakume.

Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria

Elhuyarreko teknikariak (teknikari bat)

Gai zerrenda:

1.- SARRERA

Bilerara etorri garen guztiok elkar ezagutzen dugula kontutan hartuta, zuzenean **girotzeko dinamika** egin dugu: alderdi bat aipatu dugu eta horrekin bat egiten dutenak zutitu dira.

Ondoren, gaurko **bileran landuko ditugun gaiak** aurkeztu ditugu.

2.- KUDEAKETA-EREDUARI EGINDAKO EKARPENAK AURKEZTU ETA ADOSTU

Kudeaketa-ereduarekin lotutako **orain arteko urratsak gogoratu** ditugu: Emakumeen Etxearen kudeaketa-eredua zehazteko, Talde Eragilean nahiz Gune Zabalean lehen proposamena aurkeztu eta ekarpenak jaso genituen. Horrez gain, ekainaren 28ra bitarteko epea utzi genuen ekarpen gehiago jasotzeko. Ibarako talde feministakoek ekarpenak bidali dizkigute, eta horietako bat dago kudeaketa-ereduarekin zuzenean lotuta. Gainontzeko ekarpenak erregelamendua lantzean aipatuko ditugu.

Kudeaketa-eredua gehiago zehaztu dugu Tolosako Udalaren eta Elhuyarren artean, eta egindako zehaztapen nagusiak aurkeztu ditugu:

Abiapuntua

- Ibarako talde feministak egindako ekarpenaren haritik, Emakumeen Etxeko **dinamizatzaileak eta Tolosako Udaleko berdintasun-teknikariak eskualdeko herrietako Gizarte Zerbitzuetako teknikariekin** ere harremana edukiko du. Beharrezkoa ikusi da horrela jasotzea, besteak beste, Gizarte Zerbitzuetan lan handia egiten delako egoera zaugarrian duden emakumeekin edota indarkeria jasan dutenekin. Tolosaldeko zenbait Udaletatik jarri izan dira harremanetan Tolosako Berdintasun Sailarekin, esaterako indarkeria kasuekin lotuta, eta bereziki, konfinamendu garaian.

Lantaldeak

- Funtzioen artean gehitu da “etxean garatzen diren **jardueren eta programen plangintza-, jarraipen- eta ebaluazio-lana modu koordinatuan** erraztea” eta horrekin lotuta dinamikaren baitan lantalde bakoitzak dinamika propioa izango duela “nahiz eta **elkarren artean erlazionatuko diren eta elkarrekin elikatuko diren**”.
- Halaber, “unean uneko beharren arabera sortuko dira, Talde Eragileak sustatuta”.

Talde Eragilea

***Taldea Eragilea, Koordinazio Gunea eta Gune Zabala gune autonomoak diren arren, elkarren artean harremanetan** egongo dira. Esaterako, Talde Eragileko hainbat partaidek besteetan (Koordinazio Gunean eta Gune Zabalean) parte hartuko dute.

- Osaeran hau zehaztu da: funtzionaltasunari begira, **gehienez 10 pertsonak** osatutako talde anitza izango da. Konpromiso-maila handiena hartzeko prest dauden emakumeek euren burua aurkeztu dezakete boluntario gisa Talde Eragileko partaide izateko, edota beste emakume batzuek proposatuta aurkez daitezke hautagaiak. Osaera adostasunez edo kontsentsuz zehaztea lehenetsiko da, hainbat irizpide kontuan hartuta; besteak beste, adina, udalerria, eragile edota elkarte, eta jatorria. Beharrezkoa bada, bozketa egingo da eta bozka-kopuru gehien jasotzen dituzten emakumeak hautatuko dira. Berdintasun-teknikari eta dinamizatzaileak ez dute bozketan parte hartuko. Bi urteren buruan, ordezkari berriak hautatzeko aukera irekiko da eta Talde Eragilearen osaera aldatzea lehenetsiko da, nahiz eta ardura-aldaketa ahalik eta egokien egiteko beharrezkoa dela baloratzen bada, ordura arteko ordezkari batzuek jarraitu ahal izango duten, gehienez hiru urtera arte.

Azken puntu honi ekarpen bat egin zaio gaurko bilera: Talde Eragilea **berritzean ordezkarien erdiak aldatuko dira eta beste erdiek jarraituko dute.**

- Talde Eragilea osatuko dutenen artean gehitu dira **Elkarteko ordezkariak**.
- Funtzioetan bi gehitu dira: “Gune Zabalean edo Asanbladan adostutakoak gauzatzeko behar diren **baldintzak sortzea**, eta alderdi tekniko eta funtzionalarekin lotutako **erabakiak hartzea**” eta “Taldea Eragilean lantzen diren gaien artean, **Koordinazio Gunearen edota Gune Zabala edo Asanbladan landu eta erabakitzeak** diren gaiak identifikatzea eta bideratzea”.
- Dinamikan gehitu da: “deialdiak gutxienez zazpi eguneko aurrerapenez egingo dira eta **berdintasun-teknikari eta Etxearen dinamizatzaileak ez dute bozketan parte hartuko**”.

Bilera proposatu da **gutxieneko ordezkari kopurua ezartzea** bilera egin ahal izateko; **partaideen erdiak bertaratu beharko du bilera egin ahal izateko.**

- Ohar moduan gehitu da: “Taldea Eragilea eta Koordinazio Gunea lehen aldiz osatzeko, partaidetza-prozesuan parte hartu duten Talde Eragileko eta Lantalde Politiko Teknikoko kideak hartuko dira aintzat”.

Koordinazio Gunea

- Osaeran hau zehaztu da: 10 pertsonaz osatuko da, eta beti ere ordezkari politikoen eta lantaldeetako nahiz eragile eta elkarteetako emakumeen arteko **ordezkaritza parekidea** izango da. Koordinazio Gunean parte hartzeko prest daudenek euren burua aurkeztu dezakete boluntario gisa, edota beste pertsona batzuek proposatuta aurkez daitezke hautagaiak. Osaera adostasunez edo kontsentsuz zehaztea lehenetsiko da eta, beharrezkoa bada, bozketa egingo da eta bozka-kopuru gehien jasotzen dituzten pertsonak hautatuko dira. Berdintasun-teknikari eta dinamizatzaileak ez dute bozketan parte hartuko.

Hiru urteren buruan, ordezkari berriak hautatzeko aukera irekiko da eta Koordinazio Gunearen osaera aldatzea lehenetsiko da, nahiz eta ardura-aldaketa ahalik eta egokien egiteko beharrezkoa dela baloratzen bada, ordura arteko ordezkari batzuek jarraitu ahal izango duten, gehienez lau urtera arte.

Bileran gehitu da: **ordezkari politikoak legealdiko aldatuko dira**. Era berean, atera den beste gai bat izan da ea zehaztu behar ote den zenbateko denbora-tartean ezingo duten itzuli emakumeek Koordinazio Guneko partaide izatera, baina azkenean ez da hori zehazteko beharrik ikusi.

- Koordinazio Gunea osatuko dutenen artean gehitu da: Elkarteko ordezkari bat (ahal dela, Talde Eragilean parte hartzen duena), eta lantaldeetako eta Tolosaldeko talde feministetako eta genero-berdintasuna helburu duten emakume-elkarteetako ordezkariak ere ahal dela Talde Eragilean parte hartzen dutena izatea.

Bileran proposatu da: **Tolosako Berdintasun Kontseiluko ordezkaria ez-politikaria izatea** (gainerakoan politikari eta ez-politikari arteko parekidetasuna bermatu beharko da) eta Koordinazio Gunean parte hartuko duten **politikariak ahal dela emakumeak izatea bermatzea**.

- Funtzio bat gehitu da: "Talde Eragileak proposatutako jarduerak eta proposamenak aztertzea eta bideratzea".
- Dinamikan gehitu da: "hasieran bilerak hilean behin izango dira, baina Etxeak martxa hartu ahala bilerak gutxi gora behera hiru hilean behin egitea aurreikusten da. Deialdiak gutxienez zazpi eguneko aurrerapenez egingo dira, eta berdintasun-teknikariak eta Etxearen dinamizatzaileak ez dute bozketan parte hartuko".

Bileran proposatu da **gutxieneko ordezkari kopurua ezartzea** bilera egin ahal izateko, horrela, **partaideen erdiak bertaratu beharko du eta ordezkariak parekidea izan beharko du** ordezkari politiko eta ez-politiko artean.

Bileran atera den beste gai bat izan da: **bozketan berdinketa egonez gero nola hartuko dira erabakiak?** Partaide kopurua bakoitia izateko ideia atera da, baita kalitatezko botoaren aukera ere; baina azkenean egokiena **erabakia Gune Zabalerara edo Asanbladara eramatea** dela erabaki da.

- Ohar moduan gehitu da: Talde Eragilea eta Koordinazio Gunea lehen aldiz osatzeko, partaidetza-prozesuan parte hartu duten Talde Eragileko eta Lantalde Politiko Teknikoko kideak hartuko dira aintzat.

Gune Zabala/Asanblada

- Osaeran zehaztu da: "Emakumeen Etxeko partaideak lanerako guneetako ordezkariak nahiz Etxearen dinamikan parte hartzen dutenak izatea eta Elkarteen ordezkariak ere parte hartzea".
- Funtzioetan gehitu da: "lanerako guneen osaera ontzat ematea" eta Etxearen kudeaketa orokorraren nahiz lanerako guneen jarraipena egitean, "besteak beste, lanerako guneen osaerak onartzea, urteko memoria-txostenak onartzea, eta abar".

Bileran proposatu da beste hau gehitzea: **Talde Eragilean nahiz Koordinazio Gune**ko bozketan berdinketa baldin badago, gaia Gune Zabalera eraman eta bertan erabakitzea.

- Dinamikan gehitu da: “deialdiak gutxienez zazpi eguneko aurrerapenez egingo dira, eta bozkatzeko aukera Etxearen dinamikan aktiboki parte hartzen dutenek edukiko dute (lanerako guneetako partaideek nahiz antolatutako jardueretan parte hartzen dutenek, berdintasun-teknikari eta dinamizatzaileak izan ezik).

“Aktiboki” hitzaren inguruan eztabaida sortu da bileran, azkenean erabaki da horrela uztea eta Etxearen martxaren arabera gehiago zehazteko beharra sortzen bada, aurrerago zehaztea. Halaber, proposatu da **gutxienez 11 partaide elkartzeko Gune Zabala egin ahal izateko.**

***Oharra:** Ikusi aktarekin batera bidalitako kudeaketa-ereduaren azken bertsioa ekarpenak gehituta.

3.- ETXEAREN ELKARTEA SORTZEKO LEHEN URRATSAK EMATEN HASI

Gaia kokatu dugu: Emakumeen Etxea elkarte gisa eratzea komeni da, **nortasun juridiko propioa edukita**, udalei dirulaguntzak eskatu ahal izateko eta aurrekontu propioa edukitzeko.

Beste Etxe batzuekin harremanetan jarrita, errazena da elkarte bat sortzeko **gutxieneakoak diren alderdiak** soilik zehaztea, Eusko Jaurlaritzako eredu aintzat hartuta. Beraz, esate baterako ez da beharrezkoa “bazkide” figura sortzea. Donostiako Emakumeen Etxeak, esaterako, badu; baina Basaurikoak ez.

Gomendio gisa aipatu digute komeni dela **lehendakaria eta diruzaina, egitasmoarekin konprometitutako pertsonak izatea**, “eskuragari” daudenak, paper asko sinatzea tokatzen zaielako. Baina, funtsean, egin beharreko tramite huts bat da; praktikan erregelamenduan jasoko ditugu Etxearekin lotutako alderdi guztiak, eta hori aldatzea errazagoa da.

Gure proposamena: Talde Eragileko partaideen artean lantaldetxo bat sortzea, lauzpabost pertsonak osatuta, elkarte formalki sortzeko kudeaketa-lanak egiteko, eta datozen hilabeteetan lan horiek egitea. Beharrezkoa bada, Elhuyarrek lagundu dezake, baina dagoeneko Talde Eragileko zenbaitek sortu izan dute, badago esperientzia, eta, beraz, interesgarria izan daiteke horrela bideratzea.

Pilar Garaialde, Onintza Lasa eta Ixiar Carabelos prest agertu dira lantalde horretan parte hartzeko. Proposamen bat egingo diote taldeari.

Idea bezala atera da dagoeneko elkarte batzuk sortuta daudenez, esaterako Tolosako Asanblada Feministak bere elkarte du, elkarteen elkarte bat sortzea; baina konplexuagoa izan daiteke, askoz ere sinpleagoa da hiru arduradun izendatuz (lehendakaria, idazkaria eta diruzaina) elkarte bat sortzea. Tolosako Asanbladaren kasuan, esaterako, Jaurlaritzako eredu egokitu zen lehendakariari boterea murriztuz eta batzarra indartuz. Lantaldeak proposamena lantzean Talde Eragilean aurkeztuko dute.

4.- ERREGELAMENDUAREN HEZURDURA ZEHAZTU

Gaia kokatu dugu: aurreikusita dugun lanketetako bat da Emakumeen Etxearen araudia edo erregelamendua egitea. **Bertan jasoko ditugu Etxearen zehaztapenarekin lotutako alderdi guztiak**, beraz, bertan barnebiduko da proiektu osoa. Tolosako Udaleko idazkariarekin

kontrastatzen joango gara (dokumentu juridiko bat delako), eta prozesuan parte hartzen ari garen guztien oniritzia jaso eta gero, udaletan onartuko da.

Erregelamenduaren hezurdura aurkeztu dugu, alderdi batzuk dagoeneko landuta daude (1. parte-hartze fasean), beste batzuk, aldiz, ez. Hurrengo bileretan joan beharko dugu alderdi guztiak zehazten. Hemen hezurdura proposamena:

- Etxearen helburuak eta printzipio gidariak
- Etxearen erabiltzaileak
- Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak
- Etxearen jarduerak eta zerbitzuak
- Etxearen kudeaketa-eredua: lanerako guneak eta baliabideen kudeaketa
- Etxearen funtzionamendua: jendaurreko ordutegia, Etxearen giltza, espazioen erabilera (puntuala edo jarraitua...)
- Etxeko koordinatzailearen (dinamizatzailearen) profila eta funtzioak
- Espazioen deskribapena

Taldetan banatu eta honako bi galdera hauei erantzun diegu:

- Erregelamenduan jaso beharreko alderdiren bat **gehitu edo kendu** nahi duzue?
- Alderdi bat bereziki **gehiago lantzeko/zehazteko** beharra ikusten duzue? Zein?

Egitasmoaren orain arteko zehaztapena jasotzen duen materiala banatu dugu (1. fasean landutakoa eta kudeaketa-eredua), baita bi galderari erantzunez bete beharreko fitxa ere. Ondoren, **talde handian partekatu** dugu landutakoa:

1. Taldea

- *Erregelamenduan jaso beharreko alderdiren bat **gehitu edo kendu** nahi duzue?*

Gehitzeko, gaztelerako bertsioan “erabiltzaileak”-en ez du jartzen 16 urte baino gehiagokoa.

KENDU: “lehentasuna emango zaie emakumeentzako jarduerari” eta beste modu batean ideia azaldu.

- *Alderdi bat bereziki **gehiago lantzeko/zehazteko** beharra ikusten duzue? Zein?*

Emakumearen definizioa, asteriskoaren gaia, eta abar.

Talde handian partekatzerakoan aipatu dute helburuekin ados daudela eta printzipio gidarietan laiktasunaren inguruko xehetasunak asteriskoarekin bilduta egotearen inguruan hitz egin dutela; batzuk ez dute beharrezkoa ikusten asteriskoa, laiktasunak zer esanahi duen ulertzen delako eta besteek, berriz, asteriskoaren beharra ikusten dute, gaiak eztabaida handia sortu zuela adierazten duelakoan, baina ez dira ondorio argi batetara iritsi.

Erabiltzaileen inguruan hitz egin dute gehien. Batzuek proposatzen dute “emakume” hitzari asteriskoa kentzea eta, era berean, kategoria politikoaren inguruan ematen den azalpen-parrafoa kentzea. Baina ez da adostasunik egon, iritzirik desberdinak daude. Horien artean aipatu da, oinarrian emakume bezala zer ulertzen dugun dagoela, eta denentzako oinarri berdina ez badago ezin dela asteriskoa kendu. Asteriskoa kentzen bada, emakume izatearen inguruko oinarri berbera eduki beharko genukeela uste da. Gehiago lantzeko beharra ikusten da; baina, era berean, gehiago landuta konponbide batetara iritsiko ote garen galdetzean denek argi dute ezetz, bakoitzak bere iritzia ez duelako aldatuko.

Gizonezkoek Etxeaz egingo duten erabileraren inguruan ere eztabaida egon da: gizonezkoek erabili ote dezaketen Etxea, edota esaterako maskulinitateak lantzen ari diren gizon taldeek parte

hartu ote dezaketen edo egiten dituzten jarduerak Emakumeen Etxean egin ote ditzaketen. Ez zegoen adostasunik hemen ere. Kontraesankorra ikusten da batetik dokumentuan jasotzea “emakumeek Etxea bere egindakoan eta horretarako unea dela adostutakoan hasiko da Etxea jarduera mistoak antolatzen” eta aldi berean “Etxea irekitakoan lehentasuna emango zaie emakumeentzako jardueri”. Azken hau kentzea proposatu da, eta horretan adostasuna egon da.

2. Taldea

- *Erregelamenduan jaso beharreko alderdiren bat **gehitu edo kendu** nahi duzue?*
- *Alderdi bat bereziki **gehiago lantzeko/zehazteko** beharra ikusten duzue? Zein?*

Ez die fitxa betetzeko denbora eman eta taldean partekatu dute hitz egindakoa; **erabiltzaileen definizioan** geratu dira. Alde batetik atera da, aurreko taldean bezala, “emakumeak” hitzari asteriskoa kendu eta, era berean, kategoria politikoaren inguruan ematen den azalpen-parrafoa kentzeko proposamena. Beste batzuk, ordea, ez zeuden ados. Oinarrian, batzuek uste dute transexualak emakumeak direla eta besteek ez. Azken hauen ustez helburu eta printzipio gidarietan aipatzen da inklusioa izango dela Etxea, eta ulertzen dute Etxea emakume transexualekin/gizonekin (bi ikuspegiak baitaude) inklusioa izango dela baina ondo bereizi beharko dela zein erabilpen-mota egingo duten hauek, esaterako, emakumeentzako tailerretan edo bileretan ez parte hartzea proposatu da.

Elhuyarretik aipatu da eztabaida handia eragiten duen gaia dela hau, baina erregelamenduan aurrera egitea komeni dela eta horretarako esfortzua egin beharko dugula denok.

Papelografoan idatzita jarri dugun erregelamenduaren hezurdura-proposamenean, hortaz, erabiltzaileen atala gehiago zehaztu beharra identifikatu da, bai emakume definizioa zein gizonezkoen erabilpena.

Bestalde, **Ibarrako talde feministak egindako ekarpenak** aipatu ditugu segidan:

- *Tolosaldeko Emakumeen Etxearen “kontenidoa” zehazteari garrantzia eman behar zaio, 2. Fasean programazioa definitzeaz hitz egiten da, zerbitzuak zeintzuk eta nolakoak izango diren zein fasetan definituko da?*
Hain zuzen, erregelamenduaren hezurduran identifikatu dugun “Etxearen jarduerak eta zerbitzuak” atalean zehaztea aurreikusten da atal hau. Programazioaren zehaztapena ondoren etorriko litzateke.
- *Herrietako indarkeriaren aurkako protokoloak nola koordinatuko dira eta Emakumeen Etxea nola txertatuko dugu bertan?*
“Etxea zertarako eta Etxearen helburuen” atalean indarkeriaren gaia jasotzea egoki ikusi da. Indarkeria terminoaren (matxista, sexista, genero-indarkeria...) zehaztapena eta adostasuna beharrezkoa izango dela ere aipatu da.
- *Dinamizatzailearen figura. Bere jarduna Tolosaldeko herrietan bere presentziarekin bermatu behar da (ez egotea beti eta soilik Tolosan).*
“Dinamizatzailearen profila” atalean zehazteko gaia da.
- *Era berean, programazioa eskualdeko herrietan garatzearen garrantzia. Jarduerak herrietan bermatzea, alegia.*
“Jarduerak” atalean dagoeneko jasota dago.
- *Liburutegia. Koordinazioa Tolosaldeko herrietako liburutegi zerbitzuekin.*
“Jarduerak” atalean zehazteko hau ere.

Ondorioz, **hezurdurako hainbat atal gehiago zehazteko beharra identifikatu da**, hurrengo bileretan joango gara lantzen. Edozein kasutan, erregelamenduaren hezurdura-proposamenearekin aurrera egitea erabaki da, eta nola landuko den ere galdetu da. **Potoloenak bukaerarako uztea**

proposatu da, eta ez da beharrezkoa ikusten erregelamendua lantzeko lantalde bat sortzea (Elkartarekin egingo den bezala).



5.- AZKEN BERRIAK PARTEKATZEA

Batukadak egindako eskariari jarraituz, Emakumeen Etxeko gela bat intsonorizatzeko eskaeraren aurrean “Rehark Estudio”-ak (Tolosako Udalak estudio honi esleitu zion exekuzio-proiektua) egindako txosten teknikoak zer dion azaldu du berdintasun-teknikariak:

Prozesua kronologikoki azaltzen da txostenean, eta aipatzen da aurreko arkitektoak egindako **aurreproiektuan ez zela Batukadarako entsegu-gelarik agertzen**. 2020ko azaroan aurreproiektua aurkeztu zen, 2021eko martxoan onartu zen, eta segidan, exekuzio-proiektua aurkeztu zen ekainean. Batukadako entsegu-gelako eskaria jada oinarrizko proiektua aurkeztuta eta onartuta zegoenean aurkeztu zela aipatzen da. “Rehark Estudio”-ak dio fase honetan malgutasun gutxiago dagoela, diseinua eta aurrekontua zehaztuta daudelako. Aurreproiektua onartu aurretik aldaketa guztiak Talde Eragilearekin partekatu eta onartu zirela gaineratu du berdintasun-teknikariak, eta ez zela Batukadarako entsegu-gelaren eskaerarik agertu. Aurreproiektua landu zuen arkitektoarekin areto nagusian zer nolako jarduerak egingo ziren zehaztu zenean Batukadaren entsegu-gelarena ez zela agertu ere gaineratu da. Edozein kasutan, balizko **entsegu-gela bat proiektuan barneratzeko azterketa egin du** oraingo arkitektoak. Atera dituen ondorioak hauek dira:

- Exekuzio-proiektua aurkezteko aste batetara ezin da horrelako aldaketa bat egin, aurreproiektuan ezarritako aurrekontua fakturatzen delako, eta Batukadarako beharrezkoa den isolamendu akustikoak **aurrekontuaren aldaketa handia dakarrelako**; asko igoko litzateke aurrekontua. Isolatzeaz gainera, aireztapen-sistema aldatu beharko litzateke eta horrek ere aurrekontu handiagoa eskatzen du.
- Auzokideak ez molestatzeko zeharo isolatuta dagoen gela bat beharko litzateke. Batumoren 20 bat emakumek entseatzuten dutela kontuan izanda, **aforo hori duen gela bakarra areto nagusia da**, eta gela horrek ez du bermatzen Batukada batek behar duen isolamendu akustikoa irekitzen diren leihoak dituelako.
- **Atzeko lokalean leihorik gabeko bi gela daude**, baina horiek elkartuta ere ez du 20 laguneko aforoa bermatzen. Gainera, bi gela horietan 20 pertsona Batukadan aritzeak ez lituzke ongizate-baldintzak beteko auzokideei begira. Eta intsonorizazioa eginda ere ezingo litzateke bermatu auzokideek bertako soinua entzungo ez dutenik.

Ondorioz, eta txosten honetan oinarrituta, Tolosako Udaleko **Hirigintza Sailak dio ezin dela Batukada entseguentzako gelarik atondu** Tolosaldeko Emakumeen Etxean.

Era berean, **Musika Eskolako zuzendariarekin** hitz egin du berdintasun-teknikariak bertan Batukadak entseatzeko eduki ditzakeen aukerak aztertzeko, eta ezezeko borobila eman du honek ere, beraien artean arazo handiak dituztelako gelak banatzeko. Batukadak gela handiena beharko luke, eta beteta dago egunero eta eguneko ordu guztietan; baita larunbatetan ere, goiz zein arratsalde.

Herriko beste guneren batean pentsatzea proposatu da, esaterako, Kultur Etxeko areto nagusian. Edozein kasutan, Emakumeen Etxean ez denez posible izango, gaia Berdintasun Saila eta Batukadaren artean bideratu behar dela ondorioztatu da.

***Oharra:** Ikusi aktarekin batera bidalitako txosten teknikoa.

6. BILERAREN ITXIERA

- Oporretara joan aurretik **Lantalde Politiko Teknikoaren bilera** bat egitea aurreikusten zen; baina azkenean irailera atzeratu da.
- **Talde Eragilearen hurrengo bilera** irailaren 22an izango da arratsaldeko 18:00etan Amarozko auzo-etxe lokalean.

Bukatzeko, **bilera baloratzeko** balorazio-orriak banatu ditugu. Hauek dira jasotako balorazioak 1-5 eskalan, 1= oso txarra eta 5= oso ona dela aintzat hartuta:

BALORAZIO-ALDAGAIA	BATEZ BESTEKO PUNTUAZIOA (1-5)
Emankorra	3,5
Gardena	4
Konfiantzan oinarritutakoa	3,9
Hezteko eta garatzeko balio duena	3,7
Harreman horizontaletan/ahizpatasunean oinarritutakoa	3,8
Parte-hartzailea	4,3

○ Zerk sentiarazi zaitu ongi?

- *Ideiak eroso eta lasai azaltzeko dagoen giroak.*
- *Iritzi askeak ematea.*
- *Giro ona.*
- *Lekua oso egokia iruditu zait.*
- *Giroak.*

○ Ezerk sentiarazi zaitu deseroso?

- *Ez.*
- *Elkar ulertzeko/entzuteko dauzkagun zailtasunak.*
- *Konturatu naiz "emakume* erabiltzaileak" ikuspegi oso ezberdinak daudela eta zailtasun bezala ikusten dut.*
- *Emakumea zer den eztabaidak.*
- *Denbora luzea aurkezpena. Pantaila txikia. Denborarik gabe hitz egiteko.*
- *Berdintasun-teknikaria talde batean sartu da eztabaida baten erdian, eta bere jarrerarekin deseroso sentiarazi nau.*
- *Arbela ezin dut ikusi, nire bistagatik, eta paperezkoa eskertuko nuke jarraipena hobeto egin ahal izateko. Proposatuko nuke deialdian bidaltzea.*
- *Komentario batzuk: iritzi hori ez da gaurkoa. Hori insulto izan daiteke.*

- *Iritzi oso kontrakoak edo oso desberdinak sortzen direnean deseroso nago. Ez dakit nola kudeatu.*

